

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Funtsezko elkarteak negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak osatzen ditu eta enpresek aliantzak desberdinak egiten dituzte ondorengo arrazoiengatik:

- Negozio-eredua optimizatzeko.
- Arriskuak murrizteko.
- Baliabideak eskuratzeko.

Gure enpresa lau langilez osatuta dago eta guztion rola izango da tabernetako janaria bezeroen etxeetara bizikletaz eramatea.

Hala ere, gure enpresari dagokionez, herriko tabernekin aliantza bat egingo dugu, bion artean adostasun batera iritsiz diru-sarrerak banatzeko; izan ere, bizikletaz janaria norbaiti eramaten diogun bakoitzean, erosleak ordaindutako %30a guretzat izango da eta bestea tabernarentzat.

Gainera, inguruko tailerrekin ere harreman estua dugu, konfiantza handia baitugu bertako langileekin. Beraz, bizikletaren batekin arazoren bat izaten badugu edota konponketa txikiren bat beharko balu gure bizikletak, ez litzateke trabarik egongo tailer hauetako langileekin kontaktuan jartzeko eta bizikletaren matxura segituan erreparatzeko.

Bestalde, orain bakoitzak etxean duen bizikleta erabiliko du, ez baitugu diru asko gastatu nahi horretan. Hala eta guztiz ere, gure irabaziak edo diru-sarrerak handitzen doazen heinean, bizikleta berrien erosketan pentsatzen hasi gaitezke, bizikleta hobek izateko. Hau, etorkizun batean noski.

Horrez gain, bizikleta horiek atzealdean kaxa berezi bat eraman beharra dute janaria garraiatu ahal izateko eta bidean janaria ere ez galtzeko. Kaxen kontua ere kontrolpean dugu.

Kaxak, Amazon enpresan erosiko ditugu, Internet bidez eta kartoiezkoak izango dira noski, plastikoa eta bestelako materialak kutsatzaileak saihestu nahi baititugu.

Izan ere, Amazon enpresan eskatutako produktuak berehala iristen dira eta gainera, merkea izaten da normalean. Horrexegatik aukeratu dugu bertan eskatzea, azkarra delako eta ekonomikoki ere guretzat egokia zein errentagarria delako, ez baitu gastu handirik suposatzen (lehen esan bezala, enpresa hasi berria garenez, ez dugu gastu handirik egin nahi)..

Gainera, ez da ezertxo ere behar kaxa hauek bizikletan eusteko, kaxa bera diseinatuta baitago bizikleta atzean jartzeko. Azken ezaugarri hau ere, guretzat oso positibo eta onuragarria da.

